

# Anima zaitez, egin ezazu bat Eskulana

 Parte hartu, kontsumitu  
gutxiago, berrerabili gehiago

## Zakutxo aromatikoak edo bero ematekoak



Zakutxoak apainduak egiteko kamiseta zaharrak erabiliko ditugu, zakuak landare aromatikoekin edo beraien esentziekin beteko ditugu.

1. Zakuak eratzeko, molde gisa plater bat erabiliko dugu, zenbat eta handiagoa izan platerra orduan eta handiagoa izango da zakuak.
2. Egindako marka jarraituz moztuko dugu oihala eta baita ere oihalaren beste tira bat moztu beharko dugu zakutxoa itxi ahal izateko.
3. Bilgarria prest dugunean, erdian arroza eta nahi ditugun esentzia edo landare aromatikoak jarriko ditugu.
4. Elkartu muturrak eta itxi moztu duzun tirarekin, saiatu ahalik eta ondoen itxita eta estututa geratu dadin.

### Bakarrik beharko dituzu material hauek:

Berrerabiltzeko oihalak (Kamiseta, frakak...)

Forma markatzeko rotulagailuak

Artaziak

Landare aromatikoak

Arroza

